

Komunitatearen Gizarte Erantzukizuna Hizkuntza Ekologiaren Parametroetan

J. Inazio Marko Juanikorena

UPV/EHU – Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

inazio.marko@ehu.es

Sarrera-data: 2011-11-17 | Onartze-data: 2011-12-16

Laburpena. Lan honetan, *Hizkuntzarekiko Komunitatearen Gizarte Erantzukizuna* indar-idea berria azaltzen dugu. Egungo gizartean hain ezaguna egin den globalizazioaren testuinguruan enpresa munduan garatu den *Gizarte Erantzukizunaren* kontzeptua abiapuntu, eta hortik eratorritako *hizkuntzarekiko enpresen gizarte erantzukizuna* ikuspegi egokituarekin erlazionatuz, kontzeptu hori organizazioen alorretik komunitatearen alorrera eraman nahi izan dugu, eta jarraian *Komunitatearen Gizarte Erantzukizuna* kontzeptua azaldu, hizkuntza propioen garapen sozialarekin eta hizkuntza-ekologiarekin lotu eta *Hizkuntzarekiko Komunitatearen Gizarte Erantzukizuna* indar-idea gisa gorpuztu. Amaitzeko. Hizkuntza-ekologiaren ikuspuntutik abiatuta, eta Bronfenbrenner-en *Pertsonaren garapenaren Eredu Ekologikoaren* erreferentzia jasoz, euskararen hizkuntza-ekosistemaren iraunkortasuna bermatzen eta euskara hizkuntzarekiko komunitatearen gizarte erantzukizuna indartzen laguntzeko zenbait jardunbide-proposamen egiten ditugu. • **Hitz-gakoak:** *gizarte erantzukizuna, hizkuntza-ekosistema, eredu ekologikoa, gizarte globalizatua.*

Abstract. Community Social Responsibility in Language Ecology Parameters. This paper deals with the latest core idea: Social Responsibility of the Community with respect to the language. From the starting point of the concept of *Social Responsibility* developed in the world of business in the context of globalisation that is so well known in today's society, and by linking that with an adapted perspective of the *social responsibility of companies with respect to the language* which derives from it, we wanted to take that concept out of the sphere of organisations and into the sphere of the community, and go on to explain the concept of *Community Social Responsibility*, linking it with the social development of autochthonous languages and language ecology and give shape to the core idea of *Social Responsibility of the Community with respect to the language*. To conclude, from the perspective of language ecology, and picking up the reference of Bronfenbrenner's *Ecological Model of Human Development*, we will be putting forward some proposals for practices designed to contribute towards the sustainability of the language ecosystem of Basque and to strengthen the social responsibility of the community with respect to the Basque language. • **Key words:** *social responsibility, language eco-system, ecological model, globalised society.*

SARRERA

Lan honetan, *Hizkuntzarekiko Komunitatearen Gizarte Erantzukizuna* indar-idea berria azaltzen dugu. Egungo gizartean hain ezaguna egin den globalizazioaren testuinguruan enpresa munduan garatu den *Gizarte Erantzukizunaren* kontzeptua abiapuntu, eta hortik eratorritako *hizkuntzarekiko enpresen gizarte erantzukizuna* ikuspegi egokituarekin erlazionatuz, kontzeptu hori organizazioen alorretik komunitatearen alorrera eramán nahi izan dugu, eta horrela *Komunitatearen Gizarte Erantzukizuna* kontzeptua azaldu, *hizkuntza* propioen garapen sozialarekin eta *hizkuntza-ekologia*-rekin lotu eta *Hizkuntzarekiko Komunitatearen Gizarte Erantzukizuna* indar-idea gisa gorpuztu. Horretarako, Castells eta Krause bezalako autoreen erreferentzia jasota *komunitateaz* ulertzen duguna eta Jonas-en *erantzukizunaren printzipioan* oinarrituta *erantzukizunaz* ulertzen duguna ere definitu dugu. Amaitzeko, *hizkuntza-ekologiaren* ikuspuntutik abiatuta, eta Bronfenbrenner-en *pertsonaren garapenaren eredu ekologikoaren* erreferentzia jasoz, euskararen *hizkuntza-ekosistemaren* iraunkortasuna bermatzen eta eus-kara *hizkuntzarekiko komunitatearen* gizarte erantzukizuna indartzen laguntzeko zenbait jardunbide-proposamen luzatzen dugu.

GIZARTE GLOBALIZATUA: ONURAK ETA ARRISKUAK

Jakina denez, egun bizi dugun gizarte modernoaren ezaugarri nagusienetako bat globalizazioa deitu izan den fenomeno da. Mundializazio gisa ere ezagutzen den globalizazioa, berriz, garapen eta aldaketa teknologikoen eta ekonomikoen garaiko gizarte egituretan eta bizi moduetan eragindako aldaketa prozesu sakon bat da; norbanakoen, taldeen, enpresen eta herrialdeen arteko harremanak eta trukeak ugaltzea ekarri duen prozesua, eta ondorioz, munduko eskualdeen arteko lotura politikoak, ekonomikoak, kulturalak eta sozialak biziki areagotzea ere bulztatu duen aldaketa prozesua.

Globalizazioa onurak ekarri ditu gizakion bizitzan, hori ukaezina da. Egun, inoiz ez bezala, munduan sortzen den informazioa edota eza-gutza erraz eskuratzeko eta zabaltzeko aukera dago, hurbilera eta urrunera elkarrekin komunikatzeko bide azkarrak daude, eta, munduko bazter guztietako produktu ezberdinak eskura ditugu nahierara (batez ere ekonomikoki aurreratutako herrialdeetan).

Baina globalizazioak arriskuak edota kalteak ere sortzen ditu, bereziki bi arlotan, aspektu ekonomikoekin zer ikusia duen arloan eta aspektu kulturalekin zer ikusia duen arloan:

***Merkatu-
desregulariza-
zioaren eta
ekonomiaren
liberalizazioaren
testuinguru
horretan, eta
aipatu arrisku
sozialei aurre
egin asmoz, duela
jada urte batzuk
enpresa-
erakundeek
gizartean
betetzen duten
funtzioaz eta
duten
erantzukizunaz
ikuspegi berri bat
zabaltzen hasi
zen.***

Kasu horretan enpresak hizkuntzarekiko gizarte erantzukizuna bereganatu eta EFQM ebaluaziorako memoriaren bidez operatibizatzen iristen da. Beste modu bat GRI (Global Reporting Initiative) Gidaren egokitzea eta aplikatzea izan daiteke.

- Batetik, ekonomiaren liberalizazioak, merkatuen nazioartekotzeak eta multinazionalen hazkundeak pertsonen eta inguruneen babes sozialerako baldintzak ahultzeko arriskua areagotu du.
- Bestetik, berriz, erabat interkonektatutako gizartean komunikabide eta kultur industria ahaltsuek duten zabalkunde ahalmenaren eraginez, botere politiko-ekonomiko jakin batzuekin lotutako kultur balioak inposatzeko eta homogeneizaziorako patroiz sozio-kulturalak munduan zehar hedatzeko joera areagotu da.

ENPRESEN GIZARTE ERANTZUKIZUNA

I Aspektu ekonomikoekin zer ikusia duen arloari gagozkiolarik, merkatuen desregularizazioaren eta ekonomiaren liberalizazioaren testuinguru horretan, eta aipatu arrisku sozialei aurre egin asmoz, duela jada urte batzuk enpresa-erakundeek gizartean betetzen duten funtzioaz eta duten erantzukizunaz ikuspegi berri bat zabaltzen hasi zen eta, horrela, enpresek gizartearen ongizateari eta ingurunearen garapenari lagunduko dieten helburuak bereganatzearen beharraz eta komenigarritasunaz hitz egiten hasi zen.

Ildo horretan garatutako hainbat ekimen instituzional garrantzitsu azpimarra daitezke. Esate baterako, 1999an Kofi Annan Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusiak enpresen alorrean jokabide etikoak sustatzea eta indartzea bultzatzen duen ekimen bat aurkeztu zuen, Munduko Ituna deitua izan dena. Borondatezko izaera duen Munduko Ituna ekimen horrek hazkunde iraunkorra eta erantzukizun zibikoa enpresen lidergo konprometituaren eta sortzailearen bidez sustatzeko esparru orokorra eratzeko xedea bilatzen du eta, bide horretan, oinarritziko hamar printzipioen ezarpena bultzatzen du: ustelkeriaren aurkako borrokan eta ingurugiro, lan zein gizarte eskubideetan funtsatutako hamar printzipio.

Ildo beretik, Europako Batzordeak 2000. urtean enpresen erantzukizun soziala aldarrikatu zuen eta 2001ean Liburu Berdea argitaratu eta EGEn (Enpresen Gizarte Erantzukizunaren) sustapenerako prozesua abiatzea erabaki zuen.

Zer da Enpresen Gizarte Erantzukizuna? Europako Batzordearen Liburu Berdeak definitzen duenaren arabera, enpresen gizarte erantzukizuna enpresek bere interlokutoreekiko harremanetan eta jarduerakomertzialetan gizarte eta ingurugiro alorreko ardurak bereganatzea eta txertatzea da. Nazioarteko 75 enpresek eta beste 27 erakunde estatalek osatzen duten CSR Europe (Corporate Social Responsibility) erakun-

deak dionaren arabera, enpresek bi erantzukizun mota dute: bata komertziala, negozioetan arrakasta edukitzearekin zer ikusia duena, eta bestea soziala, komunitatean eta gizartean bete beharreko funtzioarekin zer ikusia duena. Esan nahi baita, enpresek erantzukizuna dutela beren jarduerak lan arloan, gizartearen arloan eta ingurugiroaren arloan sortzen dituzten inpaktoei dagokionean.

Erantzukizun horrekin, bestalde, enpresei aukera zabaltzen zaie giza eskubideekiko, ingurugiroaren jasangarritasunarekiko edota beste hainbat eskubide sozial, kultural eta ekonomikoekiko duten errespetua eta konpromisoa erakusteko eta horrela, bide horretan sakonduz, enpresek gizartean duten posizioa hobetu dezakete.

Hizkuntzarekiko Enpresen Gizarte Erantzukizuna

Bestalde, enpresa osatzen duten pertsonen eta kokatua dagoen gizartearen ezaugarri sozial eta kulturalen garapenarekiko erantzukizuneari sakonduz, eta normalizazio prozesuan diren berezko hizkuntza gutxiagotuak dituzten gurea bezalako herri eta komunitateetan, enpresen gizarte erantzukizunaren esanahia eta filosofia zabaltzen ari da, bertako hizkuntzaren garapen normalizatzailearen aldeko ikuspegiak eta edukiak bereganatuz eta Hizkuntzarekiko Enpresen Gizarte Erantzukizuna dei genezakeen kontzeptua atonduz.

Gero eta gehiago dira bere gizarte erantzukizunaren baitan hizkuntzarekiko erantzukizunaren ikuspegi hori bereganatzen ari diren eta bere jardun praktikoan dinamika positiboak gauzatzen ari diren enpresak. Adibide bat aipatuarren, Gipuzkoako Geysen enpresak 2004ean kanpo ebaluaziorako prestatuturiko EFQM memoriaren hainbat ataletan bereganatu duen gizarte erantzukizuna praktikan nola aplikatu duen eta hizkuntzaren normalizazioarekin nola lotzen duen azaltzen du, eta pertsonen buruzko 3. ataletan horrela dio:

“3e. Recompensa, reconocimiento y atención a las personas de la organización:

Concienciación e Implicación en aspectos de Seguridad y Salud Laboral, Medioambiente y Responsabilidad Social.(...)

Asimismo, fomentamos al concienciación e implicación en temas de responsabilidad social a través de prácticas integradas en nuestra actividad cotidiana, como por ejemplo: (...)

- Elaboración de un Plan de Euskaldunización de las personas de Geysen y creación de la estructura de gestión correspondiente (Comité de Euskara cuyo coordinador es el Director de Personal, Grupos de Uso y Grupos de práctica verbal)” (Geysen, 2004: 24)

**Komunitatearen
Gizarte Erantzukizuna
indar-idea
berria sortzearen
aldeko proposa-
mena luzatzen
dugu, eta horren
zabalpen gisa,
Hizkuntzarekiko
Komunitatearen
Gizarte Erantzukizunaren
planteamenduetan sakontzearen
aldeko proposa-
mena.**

**Komunitatearen
Gizarte
Erantzukizuna
honako hau
izango litzateke:
komunitatearen
kide garen
pertsona eta
gizarte-talde
ezberdinek,
legeek eta arauak
agintzen dutenaz
harago,
komunitateren
ekosistema
osoaren garapen
jasangarri eta
harmonikoarekin
dugun Gizarte
Erantzukizunaz
kontzientzia
hartzea, eta
bakoitzak, ardura
dugun era
guztietako
'gizarte-
instituzioetan'
modu aktibo eta
positiboan
eragitea.**

Hizkuntzarekiko enpresen gizarte erantzukizuna operatibizatzeke modu ezberdinak egon daitezke. Modu bat aurreko adibidean azaltzen dena izan daiteke, kasu horretan enpresak hizkuntzarekiko gizarte erantzukizuna bereganatu eta EFQM ebaluaziorako memoriaren bidez operatibizatzea iristen da. Beste modu bat GRI (Global Reporting Initiative) Gidaren egokitzea eta aplikatzea izan daiteke. GRIren gida da gizarte erantzukizunaren sistematizaziorako gaur egun hedatzen ari den tresna nagusienetakoa eta enpresa garrantzitsu asko erabiltzen duten euren gizarte erantzukizuna egituratzeko eta memorieta azaltzeko. Gida horretan, hainbat argibide eta adierazle multzo bat jasotzen dira erantzukizunarekin lotutako jarduerak egituratzeko eta beren jarraipena operatibizatzeke. Adierazle horietako hainbatetan, berriz, hizkuntzarekin zer ikusia duten eduki-adierazleak jaso ditzakegu beren esanahia horretarako aukera ematen baitu. Hori eginez, ondoko taulan azaltzen den moduan osatuko lirateke *GRI Gidaren* adierazleak hizkuntza parametroekin egokitu ondoren:

1. Taula: GRI Gidaren adierazleak hizkuntza parametroekin egokitu ondoren. Simulazioa

ADIERAZLEAK GRI ren GIDAN			GRIren ADIERAZLEAK BALIZKO HIZKUNTZA PARAMETROEKIN OSATUTA
ARLOA	KATEGORIA	ASPEKTUA	HIZKUNTZA PARAMETROAK
Gizartea	Lan jarduera	Lan harremanak	Harremana zein hizkuntzatan gauzatzen da. Zein da langileen berezko edo nahikunde hizkuntza.
		Aniztasuna eta berdintasuna	Hizkuntza aniztasunaren errekonozimendua.
	Giza eskubideak	Diskriminaziorik ez	Hizkuntza eskubideen eta hizkuntza nahikundearen bermea.
		Herri indigeneen eskubideak	Euskararen ofizialtasuna. Bertako eta nazioarteko legedia.
	Gizartea	Komunitatea	Komunitatearen hizkuntza garapenari laguntza
	Produktuen erantzukizuna	Produktuak eta zerbitzuak	Zein hizkuntzatan eskaintzen dira. Kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak nola bermatzen dira.
		Marketing	Publizitatean komunikazioa zein hizkuntzatan gauzatzen da.

KOMUNITATEAREN GIZARTE ERANTZUKIZUNA

Galdera: erantzukizunaren ikuspegia enpresa/erakundeetan hedatu den moduan, zabaldu al daiteke ere gizarte/komunitatearen alorrean?

Globalizazioaren aspektu ekonomikoetatik eratorritako arriskuei aurre egiteko enpresaren gizarte erantzukizunaren filosofia sortu den moduan eta filosofia horrek hizkuntzarekiko enpresen gizarte erantzukizunaren planteamenduak zabaldu dituen moduan, aspektu soziokulturalekin zer ikusia duen arloari gagozkiolarik, eta arlo horretan globalizazioak sortzen duen homogeneizatzeko arriskuei aurre egiteko, *Komunitatearen Gizarte Erantzukizuna* indar-idea berria sortzearen aldeko proposamena luzatzen dugu, eta horren zabalpen gisa, *Hizkuntzarekiko Komunitatearen Gizarte Erantzukizunaren* planteamenduetan sakontzearen aldeko proposamena.

Zer ulertzen dugu *komunitateaz*? Jasotzen dugun ikuspuntuaren arabera, komunitatea gizarte-ekosistema bat da, hau da, lurralde soziokultural jakin batean kokatzen den espazio naturala. Espazio horretan kokatzen den gizarte-ekosistema hori bere sustrai eta patroikulturaletan auto-errekonozitzen den gizarte-talde bateko pertsonen sozializazioarako gune positiboa izango da, eta etorkizuneko gizarte-erakuntzarako auto-kontzientzia eta pertsonalitate propioa duen gizarte-sistema oso bat osatuko du (Brunner, 1997; Castells, 1997-1998, Krause, 2001). Hau da, mundu globalizantean erantzukizunez ezaugarri eta marka propioak garatuko dituen komunitatea izango da.

Zer ulertzen dugu *erantzukizunaz*? Gizartearen garapen positiboarekin ardura hartzea izango litzateke, ulertuz guztiaren oinarrian printzipio etikoak daudela, Hans Jonas filosofoak (1975) "*Erantzukizunaren Printzipioa*" deitu zuena eta inperatibo kategoriko moduan formulatu zuena era honetan; *Joka ezazu modu batean zeinaren arabera zure ekintzen ondorioak lur planetan benetako giza-bizitzaren iraunkortasunarekin bateragarriak izango diren. Zentzu horretan, erantzukizuna horrela defini daiteke: gizarte edo komunitate jakin bateko kideok, norbanako gisa edota gizarte-talde bateko partaide gisa, elkarren artean eta gizartearekiko duen betebeharrak edo konpromisoa.*

Komunitatearen Gizarte Erantzukizuna, berriz, honako hau izango litzateke: komunitatearen kide garen pertsona eta gizarte-talde ezberdinek, legeek eta arauak agintzen dutenaz harago, komunitateren ekosistema osoaren garapen jasagarri eta harmonikoarekin dugun Gizarte Erantzukizunaz kontzientzia hartzea, eta bakoitzak, ardura dugun era guztietako 'gizarte-instituzioetan' (etxean, lagunartean, kirol/kultur

Hizkuntzen eguneroko existentzia eta garapena ekosisteman parte hartzen duten elementu ezberdinen arteko oreka dinamikoaren menpe dagoela.

**Hizkuntzaren
ekologiaren
ikuspuntutik
jasangarritasuna
rekin lotutako
hizkuntzen
garapen
iraunkorrez hitz
egin daiteke.**

taldean, lanean, ikastaldean, ardura politikoetan, instituzioetan, ...) modu aktibo eta positiboan eragitea.

Ulertzen baita ekosistema ez dela soilik gugandik aparte dagoen 'natura' hori; aitzitik, bizi dugun espazioaren ingurunean agertzen den ekosistema naturalarekin batera guk geuk ere ekosistema soziala eta kulturala osatzen dugu. Eta ekosistema horren biziraupen eta garapenarekin erantzukizuna dugu.

Hizkuntzarekiko Komunitatearen Gizarte Erantzukizuna

Gizarte-ekosistema konstruktio konplexua izanik, elementu biologiko eta sozio-kultural ezberdin askorekin osatzen da. Elementu horien artean garrantzitsuenetako bat hizkuntza da.

Ekologiaren teoria erreferentzia gisa hartuta interpreta daitekeenaren arabera, hizkuntzak ere testuinguru ekosistemiko jakinetan kokatzen diren entitateak dira. Horrek esan nahi du hizkuntzen eguneroko existentzia eta garapena ekosistemaren parte hartzen duten elementu ezberdinen arteko oreka dinamikoaren menpe dagoela. Horrela, biologia-espeziekin gertatzen den bezalaxe, testuingurua bihur daiteke espeziaren (edo hizkuntzaren) garapenerako ingurune natural bizigarria edo desagertenerako baliaezintasuneko ingurune kaltegarria. Zentzu horretan, hizkuntzaren ekologiaren ikuspuntutik jasangarritasunarekin lotutako hizkuntzen garapen iraunkorrez hitz egin daiteke.

Euskararen kasuan, bere testuinguruko ekosistema Euskal Herriko espazioan kokatzen den komunitatea da. Ez dauka besterik munduan.

Edozein ekosistemak, biziraungo badu, habitat barruko elementuen garapenerako baldintza objektiboak eta elementuen arteko oreka behar du, bestela apurtu eta desagertu egingo da. Gai horretan gizakiok ardura handia dugu. Pertsona eta komunitate gisa bizi dugun ekosistema osoaren garapen jasangarri eta harmonikoarekin dugun Gizarte Erantzukizuna ez da hautabide pertsonal hutsa.

Egon badaude ardura eta konpromiso sozialak eskubide pertsonalen gainera daudenak. Hori zenbait kasutan erraz ulertzen eta asimilatzen da; esate baterako, parke natural batean nire kotxea ezin garbitu izatea, kotxea garbitzeko dudaren eskubidearen gainera dago. Eta ez da soilik lege kontua, erantzukizunaren kontzientzia ere bada. Printzipio biotiko horri jarraikiz, eta komunitateak osatzen duen gizarte-ekosistemaren baitako hizkuntzaren planora eramanda, planteatu daiteke bizi dugun ekosistemako hizkuntzaren garapen jasangarria, kontzeptualki pertsonen balizko 'eskubide' partikularren gainera dagoen erantzukizun komunitarioa ere badela.

Eta horrek guztiak Hizkuntzarekiko Komunitatearen Gizarte Erantzukizunaren kontzeptua sortzera eta proposatzera garamatza. Kontzeptu bat, gorago definitu dugun Komunitatearen Gizarte Erantzukizuna kontzeptuarekin elkar lotuta agertzen dena eta horrela definitzen duguna:

Hizkuntzarekiko komunitatearen gizarte erantzukizuna, komunitateko kide garen pertsona eta gizarte-talde ezberdinek, legeek eta arauak agintzen dutenaren haratago, komunitateren ekosistemaren baitako hizkuntzaren garapen jasangarri eta harmonikoarekin dugun gizarte erantzukizunaz kontzientzia hartzea, eta bakoitzak, gure ardurapeko gizarte-portaeretan eta gizarte-instituzioetan modu aktibo eta positiboan koherentziaz jardutea eta eragitea izango da.

HIZKUNTZA-EKOSISTEMAREN IRAUNKORTASUNERAKO, ZER EGIN?

Bastardas (2005) irakasle kataluniarrak horrela azaltzen du “Cap a una sostenibilitat lingüística” liburuan hizkuntzen iraunkortasunaren ideia “un procés de transformació gradual de l’actual model d’organització lingüística de l’espècie humana, que tindria l’objectiu d’evitar que la bilingüització o poliglòtització col·lectiva dels ésser humans hagués de comportar necessàriament l’abandonament de les llengües pròpies dels distints grups culturals” (2005: 17).

Egile horrek azpimarratzen duenez, iraunkortasunaren planteamen- duaren aspektu garrantzitsuetako bat fenomenoak ulertzeko bere baitan jasotzen duen kontzeptio ekosistemikoa da; hau da, izakiak eta gertaerak testuinguru sistemikoetan interdependentziazko harreman egoeratan kokaturik agertzen direla eta elementu horietako baten gain esku-hartzeak elementu horren ingurunean eta testuinguruan esku-hartzea esan nahi duela defendatzen duen kontzeptioa.

Zentzu horretan, hizkuntza baten iraunkortasuna bermatzeko dinamikak planteatzerakoan, hizkuntza horrekin erlazonaturiko ekosistema soziolinguistikoen oinarritzko ezaugarriak eta eboluzio-faktoreak ezagutzea komeniko da. Iraunkortasuna xede, hizkuntzen ekologia bat planteatuz ekosistemen eta ekosistemen arteko erlazioen ekologia gisa; izan ere, oinarritzko unitatea ez baita hizkuntza, hizkuntza eta bere testuingurua baizik.

Hausnarketa honek, berriz, teorizazio ekosistemikoaren alorrera garamatza. Hizkuntza-ekosistemaren konplexutasuna ulertzeko eta bertan eragiteko, *eredu ekosoziolinguistikoak* behar ditugu. Bastardas-ek (2011)


**Hizkuntzarekiko
komunitatearen
gizarte
erantzukizuna,
komunitateko
kide garen
pertsona eta
gizarte-talde
ezberdinek,
legeek eta arauak
agintzen
dutenaren
haratago,
komunitateren
ekosistemaren
baitako
hizkuntzaren
garapen
jasangarri eta
harmonikoarekin
dugun gizarte
erantzukizunaz
kontzientzia
hartzea, eta
bakoitzak, gure
ardurapeko
gizarte-
portaeretan eta
gizarte-
instituzioetan
modu aktibo eta
positiboan
koherentziaz
jardutea eta
eragitea izango
da.**

Zentzu horretan, hizkuntza baten iraunkortasuna bermatzeko dinamikak planteatzerakoa, hizkuntza horrekin erlazionaturiko ekosistema soziolinguistikoen oinarrizko ezaugarriak eta eboluzio-faktoreak ezagutzea komeniko da.

dioen moduan, oinarrizko galdera da honako hau: ekologak ekosistemak, hau da, espezieak beren testuinguruetan, modelizatzaera eta ulertzaera iritsi diren moduan, zein izango litzateke hizkuntzen iraupenerako eredu? nola irudika dezakegu eredu ekosoziolinguistiko bat?

Galdera horren harira, analisirako eta esku-hartzerako lehen eskema orokorra ezartzen lagun diezagukeen erreferentzia bat Bronfenbrenner-en (1987) *Pertsonaren garapenaren Eredu Ekologikoa* izan daiteke. Eredu horretan, Bronfenbrenner-ek ingurune ekologikoa maila ezberdinetan egituratutako estruktura-multzo jarraitu gisa irudikatzen du, non maila edo esfera bakoitzak bestea barnebiltzen duen. Esfera horiek elkarren artean eragiten dute garapenean. Bronfenbrenner-ek maila horiek *mikrosistema*, *mesosistema*, *exosistema* eta *makrosistema* izendatu ditu.

1. irudia: Bronfenbrenner-en Pertsonaren garapenaren Eredu Ekologikoa



Mikrosistema: Pertsonak parte hartzen duen ingurune hurbila izango da (familia, eskola, lantokia ..)

Mesosistema: Ingurune hurbil horien arteko erlazioak egituratzen dituen sistema izango da.

Exosistema: Pertsonak zuzenean parte hartzen ez duen ingurunea baina berarengan zeharka eragiten duten elementuek osatzen duten sistema izango da.

Makrosistema: Sistema maila makroan ezaugarritzen duen ingurune sozio-ekonomiko eta kultural zabala izango da.

Zenbait proposamen

Hizkuntza-ekologiaren ikuspuntutik abiatuta, eta Bronfenbrenner-en *Personaren garapenaren Eredu Ekologikoaren* erreferentzian oinarrituz, euskararen hizkuntza-ekosistemaren iraunkortasuna bermatzen laguntzeko eta euskara hizkuntzarekiko komunitatearen gizarte erantzukizuna indartzeko, ereduaren lau maila sistemikoetan jardunbideak egikaritzea proposatzen dugu ondoko lau komunitate-arlo hauetan: 1) mikrosistema mailan, *komunitate funtzionalen* arloan (lantokia ..), 2) mesosistema mailan, *euskal lurraldeen komunitatearen* arloan, 3) exosistema mailan, *komunitate zientifiko-teknikoaren* arloan, eta 4) makrosistema mailan, *gizarte-komunitate zabalaren* arloan. Eta zehazki, komunitate-arlo bakoitzean era honetako jardunbideak bideratzeko proposamena luzatzen dugu:

1) Mikrosisteman, Komunitate funtzionaletan (lantokiak, eskola, ...):

- Hizkuntza-ekologiaren diskurtsoa sozializatu.
- Diskurtsoaren balio etikoak erakundeen politiketan txerta daitezen bultzatu.
- Subsidiaritatearen (bertako hizkuntza 'lokalean' egin daitekeena ez beste hizkuntza 'globalean' egin) eta funtzio eskusiboan (funtzioak esleitu bertako hizkuntzan espezifikoki garatzeko) printzipioen aplikazioa bultzatu.
- Hezkuntza prozesuetan hizkuntza-ekologiari buruzko sentsibilizazioa sartu.

2) Mesosisteman, Euskal lurraldeen komunitateetan (hizkuntza-komunitate naturaletan):

- Hizkuntza-ekologiaren diskurtsoa sozializatu, herritarren prozesu parte-hartzaileetan.
- Lurralde horien arnasgune izaera indartu.
- Lurralde horiek hizkuntza-biotopo gisa kontsideratu.
- Lurralde horiek osatzen duten sistemaren autogarapena ahalmenu.

Zer egin arnasguneak indartzeko arnasgune diren Udalerri Euskaldunetan? Hiru ildo landu bertako herritarrekin:

Jabekuntza: Hizkuntza-ekologiaren metaforak lagunduta, arnasgune izate horretaz jabetu.

Bronfenbrenner-ek ingurune ekologikoa maila ezberdinetan egituratutako estruktura-multzo jarraitu gisa irudikatzen du, non maila edo esfera bakoitzak bestea barnebiltzen duen. Esfera horiek elkarren artean eragiten dute garapenean. Bronfenbrenner-ek maila horiek mikrosistema, mesosistema, exosistema eta makrosistema izendatu ditu.

Ereduaren lau maila sistemikoetan jardunbideak egikaritzea proposatzen dugu ondoko lau komunitate-arlo hauetan: 1) mikrosistema mailan, komunitate funtzionalen arloan (lantokia), 2) mesosistema mailan, euskal lurraldeen komunitatearen arloan, 3) exosistema mailan, komunitate zientifiko-teknikoaren arloan, eta 4) makrosistema mailan, gizarte-komunitate zabalaren arloan.

Harrotasuna: Arnasgune bateko kide izatearen harrotasunaz jantzi, herri hauek besteei eskaintzen dienaz kontziente izan eta harro sentitu. Harrotasuna buru-estimuz zentzuan.

Erantzukizuna: Herri hauek eta bertako gizarte-komunitateak arnasmune izaerari eusteko eta bere balioa besteekin partekatzeko duten erantzukizuna bereganatu.

Zer egin Udalerri Euskaldunak osatzen duten arnasmuneak indartzeko? Udalerri Euskaldunen espazio geografikoa “*Babestutako Hizkuntza-Biotopoa*” izendatua izan dadin lan egin.

Zer egin Udalerri Euskaldunak sistema gisa indartzeko? Udalerriek osatzen duten sistema *AHALMENDU*, honako hauek jorratuz:

Kontzientzia: Herritarrekin landutako ildoak: jabeakuntza, harrotasuna, erantzukizuna.

Kompetentzia: Gaitasun politikoa eta gaitasun soziala udalerri mailan.

Potentzia: Ekintzarako ekimena eta energia kolektiboa. Lurraldearen garapen berritzailea.

Hiru horiek garatuz, *autonomia linguistikoa* bereganatu eta erreproduzitu.

3) Exosisteman, Komunitate zientifiko-teknikoan:

- Hizkuntza-ekologiaren diskurtsoa zabaldu.
- Gaiari buruzko disziplinarako corpus teoriko egokitua eraiki.
- Hizkuntza-ekosistemak osatzen dituzten elementuen arteko erlazioak neurtzeko eredu ekosoziolinguistikoa landu.
- Esku-hartzeekin lotutako ikerketak aplikatuak bideratu.
- Diskurtsoen sozializaziorako transferentzia-bideak antolatu.

4) Makrosisteman, Gizarte-komunitate zaballean (Hizkuntzarekiko Komunitatearen Gizarte Erantzukizuna indartzeko):

- Hizkuntza-ekologiaren diskurtsoa sozializatu.
- “Diskurtso Soziala” berritzailea hedatu (euskaraz/erdaraz)
- Marketin positiboa (komunikazioa soziala, kanpaina bateratuak, ...)
- Norbanakoak poliglotalizaziorako, norberaren hizkuntzan artatua izateko eta erlazio pribatuetan nahi duen hizkuntzan jarduteko duen eskubide pertsonalaren eta euskararen ekosistemaren iraupena bermatuko duen garapenarekiko erantzukizun komunitarioaren arteko orekaren ideia zabaldu.

- Onura sozialaren ideia zabaldu: dinamismoa, aberastasun soziala eta kulturala, gainbalioa, lurraldearen erakartasuna eta garapen ekonomikoa...

Jon Sarasuaren (2003) hitzak jasoz, edozein ekosistema moduan, minimo batzuk betetzen ez badira, hizkuntz komunitatearen ekosistema ere degradatzen hasiko da, eta ekosistema moduan bere heriotz bidean sartuko da. Horren aurrean, ekologiak etika bat planteatzen digu, zaintzearen etika, dibertsitatearen etika, biziari izaten eta garatzen uztearen etika. Eta balio etiko gisa, balio horrekiko ardura eta erantzukizuna. ●

BIBLIOGRAFIA

- Ayestarán, I., et al. (2008). Filosofía en un mundo global. Barcelona: Anthropos.
- Bastardas, A. (2009). Soziolinguistika eta hizkuntzaniztasuna ekologia konplexutik abiatutako hurbilketa. (on-line) http://www.euskara.euskadi.net/r59-bpeduki/eu/contenidos/informacion/artik31_1_ekologia_09_05/eu_ekologia/adjuntos/Bastardas-eus.pdf. (2009/08/25ean irakurria).
- Bastardas, A. (2005). Cap a una sostenibilitat lingüística. Barcelona: Angle Editorial.
- Bronfenbrenner, U. (1987). La ecología del desarrollo humano. Barcelona: Paidós.
- Brunner, J. (1997) La educación puerta de la cultura. Visor. Madrid.
- Canyelles i Pastó, J. (2007). Llengua i responsabilitat social de les empreses. Llengua i Us (39): 16-21.
- Castells, J.M. (2007). El hecho diferencial de Vasconia. Evidencias e incertidumbres. Donostia: FEDHAV.
- Castells, M. (1997-1998). La era de la información: economía, sociedad y cultura. Vol. I: La sociedad red. Vol. II: El poder de la identidad. Vol. III: Fin de milenio. Madrid: Alianza Editorial.
- Europako Batzordea (2001): Libro verde. Fomentar un marco europeo para la responsabilidad social de las empresas Bruselas: Europako Batzordea (Nº COM(2001) 366 final).
- Irizar, A. (2009). Proposamen ekolinguistiko bat Fagor E.E. nazioartekotzerako. (on-line). <http://www.sociolinguistika.org/eu/node/3769>. (2009/09/07an irakurria).
- Jonas, H. (1975). El principio de responsabilidad: Ensayo de una ética para la civilización tecnológica. Barcelona: Herder.

Minimo batzuk betetzen ez badira, hizkuntz komunitatearen ekosistema ere degradatzen hasiko da, eta ekosistema moduan bere heriotz bidean sartuko da. Horren aurrean, ekologiak etika bat planteatzen digu, zaintzearen etika, dibertsitatearen etika, biziari izaten eta garatzen uztearen etika. Eta balio etiko gisa, balio horrekiko ardura eta erantzukizuna.

- Krause, Mariane (2001). Hacia una redefinición del concepto de comunidad, cuatro ejes para un análisis crítico y una propuesta. *Revista de Psicología*, vol. X, 02 zka., 49-60 orr.
- Marko, J.I. (2004). *Gizarte Erantzukizuna Organizazioetan eta Hizkuntza*. VI. Euskal Soziologia Kongresuan aurkeztutako komunikazioa, Bilbo.
- Marko, J.I. (2004). Euskara bultzatzeko erantzukizuna eta enpresak. *Erabili.com Aldizkari Elektronikoa* (04-05-20).
- Marko, J.I. (2009). Hizkuntzarekiko komunitatearen gizarte erantzukizuna mundu globalizatuan: garapenerako indar-idea berria. *Eusko Ikaskuntzaren XVII Kongresuan aurkeztutako komunikazioa – Gasteiz*, 2009ko azaroa.
- Martinez de Luna, I. (2007). *Hizkuntzen Ekologia*. *Euskonews & Media*, 408 zka.
- Mattelart, A. (2005). *Diversidad cultural y mundialización*. Barcelona: Paidós.
- Ribas, N. (2002). *El debate sobre la globalización*. Barcelona: Bellaterra.
- Sarasua, J. (2004). Euskararen arazoa existentziala da. *Erabili.com Aldizkari Elektronikoa* (04-11-19).